

Agur Info7

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Gaur desagertuko da Info7 irratia uhinetatik. Ez da behin betiko agurra, ordea. Hamahiru urteko ibilbidearen ondoren, sorrerako helburuak bete eta erronka berriei aurre egingo dien proiektu indartsuagoa abian jartzeko lanean ari baita lantaldea jada. Urteotako bidea modu kolektiboan ixtea erabaki dute irratikoek, ibilbidea bera kolaboratzaile askori esker osatu dutelako. Talde izaera horri balioa aitortu eta hainbeste urtez irratia egin izana ospatzeko festa izango da Urruñako estudioetakoa.

Bolada batez bada ere, kazetaritzatik urruntzeko erabakia hartu dudana garaiarekin bat egingo du Info7 irratia

agurrak. Eta profesioan murgildu nintzeneko garaiez oroitu naiz. *E-mail* bidez irratian praktikak egin nahi nituela esan eta baiezkoa jaso nuen egunaz. Urruñako estudiora joaten egun gutxi neramatzala, orduroko albistegietako bat zuzenean egiteko esan zidatenean argi gorriaren aurrean pasatu nuen estualdiaz. Eguerdiko albistegi nagusiko gidaria inprimatzerakoan izaten genuen azken uneko estresaz. Praktikak amaitu orduko saio berezietan kolaboratzeko egindako eskaintzaz. Arrosa sareko “Zerbrabidea” irratsaioko gidari izateko emandako aukeraz. Urruñatik Donostiara laneko kontuak aipatzeko deitu eta bazkaritarako zer neukan galdetzen zi-

danaz. Sagardotegiez, greba egunez eta hauteskunde gauez.

Eta zorionez gain, eskerrak ematea baino ez zait bururatzen. Eskerrak, hamahiru urteotan irratia posible egin duten profesional on eta pertsona hobeei. Irratira lehen aldiz hurbildutako kolaboratzaile, bekadun edo elkarrizketatuak etxean bezala sentiarazi dituzuelako. Baliabideen faltari eta arazo teknikoei lanerako gogo gehiagorekin erantzun diezuelako. Eta isilarazitako ahotsen bozgorailu izateaz gain, zerbait esateko duenarentzako plaza aproposa izan zaretelako. Zorte on esku artean duzuen proiektu berrian eta eutsi lan egiteko duzuen modu hain gertukoari. •

Athletic

Joxean Agirre

Futbol kronikak dira egunkarietan literaturari gelditzen zaizkion gordeleku bakarrak. Askotan irakurtzen ditut Joseba Vivancorenak irribarre batekin, beti sartzen dituelako aipu jasoren batzuk, Eduardo Galeanorenak izan daitezke edo Enric Gonzalezenak (“Historias del Calcio”) edo entrenatzaile famatuen esaldiak. Berreziki onak dira, bat-batekoak direlako, Toshackenak. Horietako bat errepikatu zuen Vivancok aurreko batean: «Asteleheneretan hamar jokalarik aldatzekotan egoten naiz, asteartetan zazpi edo zortzi, ostegunetan lau, ostiraletan bi eta larunbatetan betiko kabroiekin jokatzea erabaki ohi dut».

Pasolinik Bolognako talde batean jokatu zuen atezain eta jokalarik poetak eta prosistak bereizten zituen. Camus ere atezain izan zen Aljerreko talde batean

eta Txillida Realean. Honek ere gauza interesgarriak idatzi zituen area txikian espazioak eta denborak egiten dituzten konbinaketez.

Peter Handkek ez zuen seguru asko jokatu, baina bazekien zerbait atezainaren beldurraz penaltiarenean. Javier Marias (“Salvajes sentimentales”) da futbolaz gauzarik ederrenak idatzi dituenetako bat («asteroko haurtzaroaren berreskurapena»). Nabokov, Nick Hornby eta Julian Barnes futbol zale amorratuak izan dira. Azken hau, Leicester City jais-teko zorian zegoela, Compostelan egokitu zen eta katoliko bilakatuko zela agindu zion santuari baldin eta salbatzen bazen. Ez jaistea lortu zuen, baina ez zuen hitza bete; hurrengo urtean Txapeldunen Ligarako sailkatzea jarri zion santuari baldintza moduan. Noski, ez zuen katoliko egin beharrik izan.

Badaude idazleak xake taula baten aurrean bai, baina futbola ikusten irudikatzen ez ditugunak. Horietako bat da John Coetzee Nobel sariduna. “Aqui y ahora”, Paul Auster eta bien artean 2008tik 2011ra izandako gutun trukea, irakurri berri dut eta harritu egin naiz batakin zein besteak telebistaren aurrean kirol saioei begira ematen dituzten orduak ikusita.

Neu ere, Barnes bezala, Compostelako santuari eta Begoñako Amari erregutzen hasita nago ea Athletic behingoz jaitziera postuetatik ateratzen duten; ez Athletic zalea naizelako, inondik ere, Urtezarharretan Algortan afaltzera bilduko garen guztiak hala direlako baizik, eta ez nukeelako urte berria depresio giroan hasterik nahi. Eta baita Gaizka Garitano-gatik ere. Zarauztarra da, postizoa bada ere, neu bezalaxe, eta herriko bati onena opa diot. •